

TXINPARTAK 51. zkia 2025 Udazkena

BURDINOLAKo berriak. Legazpiko Burdin Museoko Lagunen Elkartea



© Gorka Salmerón Murgiondo.

Jose Luis Ugarte, 20 urte Burdinolako zuzendaritzan

Aurkibidea

Editoriala	3
Jose Luis Ugarte, 20 urte Burdinolako zuzendaritzan	4
Un hombre que quería saber	8
<i>Felix Ibargutxi Otermin</i>	
El cerdo en la historia de los vascos	9
<i>José Antonio Azpiazu</i>	
Legazpiko ikonografia: herri baten isla	10
<i>Mikel Babiano López de Sabando</i>	
Fotografías de Patricio Echeverría S. A.	12
<i>Gorka Salmerón Murgiondo</i>	
El Nazareno de la parroquia de Legazpi	15
<i>Edorta Kortadi Olano</i>	
Crónica salida anual de Burdinola 2025	16
Patrimonio arqueológico forestal	17
<i>Ángel Martínez</i>	
Belarretara!!! (Belar-lanak lehengo erara)	20
<i>Eva Aztiria</i>	
Ignacio Agirre Montegi (1900-1912): de Essaouira al Rhin	21
Encarna Urmeneta Gabiria, San Migel ermitan	22
Digitalización de publicaciones	22
Gran mural de Albaola: ¿tu cara me suena!	23
Jendaurreko jarduerak 2024	24
Bai luzea, Santa Maria kalea	25
<i>Felix Ibargutxi Otermin</i>	
Tiempo de destrucción	27

Erredakzio taldea:

Mertxe Urkiola, Fernando Martín, Mikel Babiano, Juan Mari Burguera, Gorka Salmerón, Joan Kruz Fernández.

Argazkiak:

Mikel Babiano, Mertxe Urkiola, Julen Auzmendi, Fernando Martín, Rober Oria, Miren Salmerón, Pando, Santi Gabiria, Imprenta Industrial, José García - Manipel, Willy Koch, Photito, Ángel Martínez, Santi Fernández de Quincoces, Gorka Salmerón.

Itzulpenak:

Ana Martín, Mikel Babiano, Mertxe Urkiola.

Diseinua eta maketazioa:

Burdinola.

Inprimategia:

Gertu.

Lege-gordailua:

SS-1077/01.

Urtea:

2025.

Editoriala

Ale berri honen bidez, **TXINPARTAK** aldizkariak 50eko aleen muga gainditu du. Erredakzio taldeak aurrera jarraitzeko erronka onartu du eta argitalpen honen helburuari gogoz heldu dio: Legazpiko ingurune kulturalen gertatzen diren informazio, ezagutza eta esperientziak partekatzea eta **BURDINOLA**ri dagozkion jarduera eta gai interesgarriak ezagutaraztea. Jakin badakigu aldizkariak bazkideen estimua duela, hari esker gure inguruko istorio, gertaera, pertsona eta jarduera askoren berri dutelako, eta aldizkariaren bitartez azken horiek balio eta zabalkunde handiagoa hartzen dutelako. Horrela, bada, aiez ale, Legazpiko ondare kulturalaren errealitate historikoa zein gaur eguneko balioesten eta zabaltzen saiatzen gara.

Zenbaki bakoitzaren eskema unean uneko premia eta interesen arabera da; hortaz, gai anitzetako aleak, memoria-izaera nabarmena dutenak eta gairen bati buruzko monografikoak diren beste batzuk bereizten ditugu. Planteamendu malgu eta moldakor horrek **TXINPARTAK** bakoitza prestatzen laguntzen digu, unean uneko aukeretara eta beharretara hobeto egokituz.

Egia esan, prestaketa-lanek ahalegina eta dedikazioa eskatzen dituzte, zuzendaritza berriak bazkide guztiekin partekatu nahi dituenak. Horregatik, parte hartzera animatzen zaituztegu eta erredakzio taldeari informazioa, albisteak edo/eta zuen gustuko gaien proposamenak helarazteko eskatzen dizuegu, argitalpen honen ikuspegia sakontzeko zein aberasteko eta zabaltzeko baliagarriak diren neurrian. Oraingoz, zenbaki honek zuen interesa piztuko delakoan gaude.

*Con este nuevo ejemplar, **TXINPARTAK** supera la línea de los 50 números y su equipo de redacción acepta el reto y retoma con ganas el objetivo de esta publicación, que no es otro que compartir información, conocimiento y experiencias que se van produciendo en el entorno cultural de Legazpi, así como dar a conocer las actividades y temas de interés que ocupan a **BURDINOLA**. Nos consta que la revista goza del aprecio de socios y socias, ya que a través de ella tienen conocimiento de muchas historias, acontecimientos, personas y actividades de nuestro entorno y que por medio de la revista adquieren un mayor valor y difusión. De esta manera, pues, número a número tratamos de poner en valor y divulgar la realidad histórica y actual del patrimonio cultural de Legazpi.*

*El esquema de cada número se adapta a las necesidades e intereses de cada momento, de tal manera que distinguimos números de temática diversa, otros con un marcado carácter de memoria y otros que son monográficos sobre algún tema o cuestión. Este planteamiento flexible y versátil nos ayuda a elaborar cada **TXINPARTAK**, ajustándonos mejor a las oportunidades y necesidades de cada momento.*

Ciertamente, la tarea requiere un esfuerzo y una dedicación que la nueva directiva quiere compartir con todos los socios y socias. Os animamos a participar, en la medida que podáis, aportando al equipo de redacción información, noticias, propuestas de temas de interés... que sirvan tanto para profundizar como para enriquecer y ampliar la perspectiva de esta publicación. Por el momento, esperamos que este número merezca vuestro interés.

Jose Luis Ugarte, 20 urte Burdinolako zuzendaritzan



© Gorka Salmerón Murgiondo.

Galdera.- *Burdinola 1993an sortu zen eta zuk, Burdinolako bazkidea zinela, 1995ean erretiratuen kuadrilla bat sortzea planteatu zenion zuzendaritzari, bide zaharren eta olen aztarna interesgarriak garbitu eta berreskuratzeke. Jarduera hori ia hamarkada batez egin zen. Nola laburtuko zenuke hura, herri mailan zein zugaran, maila pertsonalean eta humanoan, ekarri zizunari erreparatuta?*

Bai, jarduera horrekin estreinatu nintzen Burdinola elkartearen eta, diozun bezala, hamarkada luze batean ibili ginen horrela gure denbora librean. Izan ere, ikusten genuen bazela kultura ondare historikoa Legazpin, oso aberatsa, eta merezi zuela azalaztea eta ezagutaraztea: Olazar burdinola, Telleriarteko Epuruko karobia, Aztiriko peabidea, Oñatirako bide zaharra, zepadiak garbitzea eta seinaleak jartzea... 1996. urtean hogeita sei lagunek ere parte hartu zuten saio horietan, erretiratu kuadrilla handi bat tartean zela. Puntuan hil da horietako bat, Esteban Markotegi, 92 urterekin. Nik uste dut egitasmo ona zela. Jomugan genituen, alde batetik, Legazpi barrutiko zepadien ingurua ezagutaraztea eta, bestetik, Oñatitik Segurara bitarteko ibilbide tematiko bat sortzea, eta urrats asko egin genituen norabide horretan: peabideen seinalizazioa, eskuorriak prestatzea, hitzaldiak, garbiketa-lanak. Baina urteak pasa ziren eta proiektuak ez zuen aurrera egin. Ez zen sendotu eta, horren aurrean, egitasmoa bertan behera geratu zen. Hurrengo urteetan jarraitu genuen, halere, intentsitate baxuagoan eta beste modu batera. Alderdi gizatiarretik begiratuta, esperientzia aberatsa izan zen, erreplikatzeko oso. Auzolanean jarduteak satis-

fazioa ematen du, baina hori bizi ez duenak ez du ikusten.

Galdera.- *2004an Burdinola krisian sartu zen, kolapsoaren mugan. Horren aurrean oso erabaki pertsonal bat hartu zenuen, eta urte horretako Batzarrean elkartearen zuzendaritza hartu zenuen zure gain. Talde batez inguratu zinen, elkarteari jarraipena emateko erabaki argiarekin. Zer arrazoik bultzatu zintuzten horretara?*

Burdinola elkartearen lehenengo hamar urteetan eroso ibili nintzen. Uste dut bokal kargua izan nuela sorreratik, baina ez zen nire ardura elkartea zuzentzea. Nire eginkizuna osagarria zela esango nuke (ondare materiala eta imateriala ikertzea, batez ere), eta, horrela, zuzendaritzaren gida-lerroa indartu egiten nuen nolabait. Ni ez nintzen, eta ez naiz gaur egun ere, burdingintzan aditua, gainerakoak bezalaxe. Arzoa sortu zen 2004. urtean. Burdingintzarekin lotutako egitasmo baten inguruan gatazka piztu zen eta orduko arduradun nagusiek alde batera egin zuten. Impasse bat sortu zen, ez aurrera ez atzera. Gainerako kideak niri begira jarri ziren, momentu hartan nahiko aktiboa nintzelako (hala uste dut) eta zuzendaritza-lanetan aritu gabea nintzelako, eta urratsa egiteko momentua iritsi zela nabaritu nuen, ezinbestean. Jakitun nintzen nire gabeziekin, baina taldekideek animatuta eta eginkizunak denon artean banatzeko konpromisoarekin aurrera egin nuen. Nire izaeratik zaila egiten zait horrelako arduetatik ihes egitea, nahiz eta gustatu ez. Laster konturatu nintzen batzuek lasaitu ederra hartu zutela Burdinola elkartearen jarraipena ziurtatu zela ikustean.

Galdera.- *Talde berriak ildo berri bat markatu zuen, Burdinola sortzea eragin zuten helburuetatik aldendu gabe, baina jarduera eremua zabalduz, bertako ondare handiaren balioa aztertzeke eta nabarmentzeko, eta bertako euskara ikertu eta aztertu eta bere balioa azpimarratzeko. Liburuak argitaratzen ere hasi zen, eta elkartearen aldizkariaren edukiak zabaldu zituen eta haren aurkezpena hobetu zuen. Zer balantze ematen du horrek guztiak denboraren buruan?*

Elkartearen norabidea zabaltzea ezinbestekoa zen momentu hartan, nahiz eta hasierako ildoari

“traizio” egitea zela sentitzen genuen. Aurreko zuzendaritzako kideek ni burdingintza puruaren bidean murgiltzea nahi zuten eta proposatu zidaten burdinolen inguruko lexikoan sakontzea... Baina ez nengoen prestatuta horretarako. Oso espezifikoa zen. Horregatik, kide berriok pentsatu genuen, superbibentziari begira, ildo berriak urratu behar genituela, betikoak erabat baztertu gabe. Eta, beldurrez bada ere, hasi ginen ordura arte ukitu gabeko gaiak ere jorratzen: Legazpiko euskara, San Migel ermita, Ignacio Agirre argazkilaria, Egialdeko historia, erakusketa biziak, etab. Aitzakia zen Legazpiko kultur jarduera oro, zuzenean edo zeharka, burdingintzaren eraginpean egon dela historikoki. Jakina, gai horiek jorratzen hasi ginen jendea bazegoelako horretarako. Balantzeari dagokionez, nik esango nuke bete-betean asmatu genuela, era horretan bazkide eta herritar gehiagorengana heltzeko aukera izan genuelako, baita ekarpen gehiago jasotzeko ere.

“Los nuevos miembros pensamos que, de cara a la supervivencia, debíamos transitar nuevas líneas, sin desdeñar totalmente las de siempre (...). Yo diría que acertamos de lleno, porque de esta manera pudimos llegar a más socios y ciudadanos, y recibir más aportaciones.”

Galdera.- *Elkartearen zutabeetako bat bertako ondarea kontserbatzearen alde lan egitea da, hau da, haizeoletako zepadiak babestea eta ibai ondoko burdinolak mantentzea eta berreskuratzea. Olaberriko burdinolaren lozorroa eta Bikuñako eta Olazarreko burdinolen aztarna arkeologiko ahaztuak ditugu gogoan, adibidez. Elkartearen gidaritzan egin duzun bide zabala dela eta, nola baloratuko zenuke gure herrian aritu diren botere organoen inplikazioa, gure ondarea berreskuratu eta mantentzeari dagokionez? Zer nabarmenduko zenuke jarduera horietatik positiboan eta negatiboan?*

Burdinola elkarteak proiektzio handia izan du 1993. urtean sortu zenetik gaur arte, jarduera eta egitasmok asko burutu ditu eta harro egoteko moduan gaude, baina ez dugu lortu bertako erakundeek inplikazio handiagoa izatea kultura ondare materialaren babesean; alderdi horretatik etsigarria izan da.

“La Asociación Burdinola ha tenido una gran proyección desde su creación en 1993 hasta la actualidad, ha llevado a cabo muchas actividades y proyectos de los que estamos orgullosos, pero no hemos conseguido una mayor implicación de sus insti-

tuciones en la protección del patrimonio cultural material, un aspecto que ha resultado decepcionante.”

Ikusi besterik ez dago, zuk diozun moduan, Olaberri burdinola nola ari den pusketaka erortzen. Bikuña burdinolaren lekuan, berriz, aparkaleku bat dago; haren presa edo uharka ederra eraitsi egin zen; Elorregi jauregia egunen batean eroriko da; bertako presa hondatu zuten... Ez dago planik “benetako” burdina-harana biziberritzeko Burdinola elkarteak sorreratik nahi izan duen bezala, eta ez dugu izan eragiteko indarrik. Dirua mugitu den garaian bestelako egitasmok arranditsuetan xahutu da, eta ez funtsezkoak diren egituretan. Ameskeria itsu horren ondorioak jasaten ari gara gaur egun. Ez dugu jakin, ezta ere, Zerainekin eta Segurarekin bat egiten, historikoki lurralde bakar modura funtzionatu badugu ere. Bistan denez, balantzea ez da positiboa.

Galdera.- *Burdinolak lehendakaritza hartu aurretik, elkarteak, Mertxe Urteagaren eskutik, hainbat lan arkeologiko egin zituen Otañuko zepadietan. Zure presidente garaian lan horiek argitaratu ziren, eta erredukzio labe bat agerian utzi zuen indusketa bat egin zen. Nola baloratuko zenuke hori?*

Lehen esan dudana bezala, burdingintzako gaiak ez genituen erabat alboratu. Hori bai, 1993. urtetik 2003. urtera bitartean haizeolen gainean egindako lanak (aurkikuntzak, neurketak, zundaketak, datazioak...) kaxoi batean geratu ziren hamarkada luzez, nahiz eta aitortu behar den Mikel Oskoz zenak eta nik neuk Otañu-Barbari ingurua miazten jarraitu genuela. 2013an Mertxe Urteagarekin kontaktuan jarri ginen berriz eta erabaki genuen hasierako lan hura amaitu behar zela, eta halaxe egin genuen. Horren emaitza da Arkeolanekin batera 2014. urtearen amaieran ateratako liburu mardula. Horren ondotik etorri ziren Ubitarteko haizeola esperimentala piztea eta Basaundiko zepadiaren indusketa. Nik uste dut horrekin Burdinola elkartearen hasierako helburu garrantzitsu bat bete zela eta, jakina, zama arindu genuela.

Galdera.- *Hogei urtez aritu zara elkarteko presidente. Urte asko dira... Une hunkigarri eta intentsitate handikoak biziko zenituen... Gogoratzen dituzu?*

Lehenik, aitortu behar dut oso buru txarra daukaldala eta “txuletari” begiratu behar diodala, hainbeste izan dira urte hauetan egindako jarduerak. Eta bai, atzera begiratuta, konturatzen naiz une

intentso asko izan direla, onak gehiago txarrak baino. Nire sentsazioa da, gainera, horietako asko historikoak eta errepikaezinak izan direla. Jardueren zerrendari begiratuta, hala ikusten dut 2004. urtean Aztiriko elkartean Aita Julian Alustizaren *Bizinahiaren arnasa* liburua aurkeztu genuela, bera bertan zela. Handik hilabete gutxira hil zen. 2005. urtean txondorra piztu genuen Egialden Angel Jauregi ikazkinarekin; izugarritzko bizipena izan zen. Urte horretan mahai-inguru bat egin genuen Legazpiko ikazkinekin. Denak hilda daude. 2008an Segurara joan ginen oinez, Legazpi Seguratik askatu zela 400. urteurrena ospatzeko; arrakasta biribila izan zen. 2011n Felix Pinillosek egindako argizaiolen erakusketa jarri genuen San Migel ermitan, Mikel Oskozek jarritako kablei esker; benetan ikusgarria. San Migelen bertan emankizun zoragarriak antolatu genituen 2013an, Amaia Azpiazu eta Xabier Ugarterekin, eta 2019an Bizkaiko dultzaineroekin. 2015ean Telleriarteko haizeolan burdina egin genueneko asteburua ahaztezina izan zen. Horrela luze jarraitu nezake.


“Echando la vista atrás, me doy cuenta de que ha habido muchos momentos intensos, más buenos que malos. Mi sensación es, además, que muchos de ellos son históricos e irrepetibles.”

Galdera.- *Nolakoak izan dira Burdinolak Legazpiko gainerako kultur elkarteekin izan dituen harremanak?*

Askotan jo izan dugu Legazpiko beste elkarteetara ekitaldiak antolatzeko eta ondo koordinatu izan gara. 2007tik aurrera, Doinua Musika Eskolarekin elkarlanean, San Migelgo kontzertua antolatzen dugu; 2007tik aurrera, halaber, Alarde Batzordean parte hartzen dugu; 2008tik aurrera, berriz, Izadi Zaleak, Armuño eta Arriurdin elkarteekin Aizkorrin Barrena mendi-martxa antolatzen dugu; 2010-2014 urteetan Zingizango elkartearekin koordinatu ginen Ahotsak egitasmoa aurrera ateratzeko; iaz, azkenik, belar-lanen erakusketa bizia egiteko Telleriarteko auzo-elkartearekin koordinatu ginen.

Galdera.- *Zer ekarpen egin dizu Burdinolak hogeitau urte hauetan maila humanoan?*

Jende askorekin izan dugu harremana urte hauetan eta sare moduko bat sortu dugu azkenerako. Orain pena daukat askorekin gehiagotan ez deitu edo idatzi izana, baina ez gara profesionalki hortik bizi izan eta zaila da burua beti horretan izatea. Hainbeste urtetan ekitaldiak antolatzen ibili naizenez, identifikatuta daukat ekarpenak egin



© Gorka Salmerón Murgiondo.

ditzaketen eta, pixka bat zirikatuta, seguru egingo dituzten pertsonak, potentzialitate handikoak direlako. Izan ere, asko dira pasioz eta eskuzabaltasunez lan egiten dutenak eta, haiekin momentu egokian harremanetan jarriz gero eta asmoak seriotasunez azalduz gero, konpromiso ikusgarriak lortu litezke. Gustura emango nituzke izenak, baina seguru nago bakarren bat ahaztuko zaidala eta horregatik ez dut egingo. Espero dut harreman horiek aurrerantzean ere mantentzea.

Galdera.- *Ausartuko zinateke lortutako lorpenen balantzea egitera?*

Gauza asko eta asko egin ditugu hogeitau urtetan: dozenaka hitzaldi eta kultur-ibilaldi; hainbat erakusketa; lanbide zaharren demostrazioak; kontzertuak; liburuak; aldizkari arruntak eta ale bereziak; egutegiak; bideoak; *Asociación La Salle* aldizkaria sareratzea; Ahotsak egitasmoa; seinaletika (Peabideak; Brinkola; Nebera); Ignacio Agirrerren argazki-bilduma; Plazaola baserriko artxiboa; Felix Pinillosen birgaitze-lanak (galera, hauspoa, aitorlekua, jarlekua...), auzo-lanak, eta aipatu ga-

beko beste hainbat. Adibide modura, aurreko batean herritar batek esan zidan Aizkorriin Barrera mendi-martxan Burdinola elkarteak prestatzen duen kultur lehiaketa oso garrantzitsua dela bertara joaten diren haurrentzat. Poztu nintzen. Gainera, Legazpiren tamainako herri askotan ez da horrelako memoria ariketarik egin eta nik uste dut guk zorte hori daukagula. Harro egoteko moduan gaude, bai, baina oinak lurrean eduki behar ditugu. Oro har, esango nuke transmisioan kale egiten ari garela eta belaunaldi gazteenek ezer gutxi dakitela guk landu ditugun gaiez.

Galdera. - Zer geratzen da egiteko?

Burdinola elkarteak hasieratik bere buruari ezarritako helburu nagusia ez da bete, Legazpi Euskal Herri mailan burdingintza hidraulikoaren erreferente bilakatzea. Aukera hori galdu dugu. Alabaina, gaur egun dudan ikuspegitik, ez nioke horri hainbesteko garrantzirik emango. Formazioa lehenetsiko nuke, hau da, herritarrek (legazpiarrek, batez ere) bertako kultura ondarea ezagutzea, nortasuna ematen diguten ezaugarriak eta elementuak identifikatzen jakitea eta haietaz jabetzea. Azken finean, ezagutzarik gabe ezin da kultura ondarea balioan jarri eta, are gutxiago, babestu eta transmititu. Horretarako hainbat bide jorratuko nituzke. Horietako bat, guk urte hauetan jorratu duguna: hitzaldiak, erakusketak, ibilaldiak, bideoak... Horrekin batera, eskola publikoan eta ikastolan muturra sartuko nuke, egingarriak diren hainbat material eta formazio-ordu proposatuz. Eta, amaitzeko, erakundeen inplikazioa bilatuz eta beste elkarte batzuekin elkarlanean, gazteei begirako formazio-saioak antolatzen saiatuko nintzateke, kredituak eta, azken finean, balio akademikoa errekonozituz. Ez da nire ideia propioa, inportatua da, eta iruditzen zait merezi duela horri buelta pare bat ematea.

“En general, diría que estamos fallando en la transmisión y que las generaciones más jóvenes saben muy poco de los temas que hemos tratado.”

Galdera. - Zer aholku emango zenioke zuzendaritza talde berriari?

Zorionez, ez dute aholkurik behar. Zaildutako jendea da, esperientzia eta kapital handikoa, eta egingo du bere bidea. Badakite non sartu diren.

Galdera. - Zerbait gehiago gehitu nahi zenuke?

Ez nuke elkarrizketa hau amaitu nahi azken hogeitaz Burdinolako martxan niretzat

oso garrantzitsuak izan diren hiru pertsona aipatu gabe: bat, Pedro Vega, pertsona alai, langilea, kontulari bikaina, mundu guztiarekin harreman ona duena eta ezinbestekoa izan dena hainbat ekimen aurrera ateratzeko. Bigarrena, Manolo Salmerón, Txinpartak aldizkariaren koordinatzailea, fina, elkartearen memoria historikoa, aldizkaria goren mailara altxatu duena eta, horrekin batera, elkartearen prestigioa. Eta, azkenik, Aitor Azpiazu, Burdinolako hainbat liburu eta kolaborazioen egilea, umila, elkartearen jarraitzaile amorratua eta antolatutako ekitaldi gehienek bideoak grabatu dituen.

“No me gustaría terminar esta entrevista sin citar a tres personas que para mí han sido muy importantes en la actividad de Burdinola a lo largo de estos últimos veinte años: el primero, Pedro Vega, persona alegre, trabajador, excelente contable, que se relaciona bien con todo el mundo y que ha sido imprescindible para sacar adelante numerosas iniciativas. El segundo, Manolo Salmerón, coordinador de la revista Txinpartak, fino, memoria histórica de la asociación, que ha llevado la revista a su máximo nivel y con ello el prestigio de la agrupación. Por último, Aitor Azpiazu, autor de varios libros y colaboraciones con Burdinola, humilde, gran seguidor de la asociación y que ha grabado los vídeos de la mayoría de los actos organizados por Burdinola.”

Jose Luis Ugarte Garrido (Legazpi, 1963)

2004tik 2024ra bitartean Burdinola elkarteko lehendakaria. Familia abertzale batean hazitako legazpiarra, lau senidetan hirugarrena. Aitona Juan Manuel Garrido nafarra fusilatua izan zen 1936ko gerran. Legazpiko ikastolako lehen belaunaldiko partaidea. Euskal Filologian lizentziatua. EAEko Administrazio Orokorrean teknikari, 2017tik aurrera Kartografia Zerbitzuan. Gazte-gaztetatik kultur mugimenduetan murgildua (Hots, Aranzadi, Zingi-Zango, Burdinola), kultur jarduera eta ekitaldien bultzatzailea (1988-1996 bitarteko erakusketa etnografikoak, Gerhard Bähr-en omenaldiak 1995 eta 2000. urteetan, Legazpiren 400. urteurrena, Saletxeren hiztegia, etab.), ondare historiko immateriala jasotzen aritua eta hainbat libururen egilea eta kolaboratzailea.

Un hombre que quería saber

Recordando a Eugenio Aguirre, memoria viva de la empresa P.E.S.A.

Felix Ibargutxi Otermin



Agustín Aguirre, Eugenio Aguirre (Foto cedida por Nekane Aguirre).

Han pasado ya unos años, pero nunca es tarde para traer a las personas a nuestra memoria. El 1 de febrero de 2022 falleció Eugenio Aguirre Odria, hombre relevante en la historia reciente de Legazpi. Nacido en 1923 en la casona de Olaberria, a los 14 años comenzó como pinche en la empresa de Patricio Echeverría y durante más de treinta años fue uno de los colaboradores más estrechos del empresario. Se encargaba de acoger a las visitas 'vips' que recibía Patricio y comenzaba la jornada dando curso a la correspondencia que recibía aquel. Se jubiló como Jefe de Coordinación de Ventas y, cuando Iñaki Beldarrain escribió la biografía del empresario, encontró en Eugenio todo un filón.

Eugenio estuvo casado con Pepita Bereciartu, quien murió en 2012. No tuvieron descendencia. Era socio de Burdinola y en más de una ocasión aportó diversos documentos y materiales a esta asociación.

Era hijo de Francisco Mari y Bernarda. Sus hermanos mayores habían nacido en Txortxikone (en la Calle vieja) y en Etxetorre, pero en 1920 Patricio Echeverría propuso a Francisco Mari pasar a ocupar una vivienda que se hallaba encima de la antigua ferrería de Olaberria y que había sido de la familia Bähr. Patricio quería así que nadie pensara en poner nuevamente en marcha la vieja infraestructura industrial del lugar para luego hacerle la competencia. Después de haber sido fábrica de munición, la vieja herrería se había convertido en fábrica de cartón, a cargo de Juan Cruz Apaolaza, hasta

que en 1885 cesó la actividad. Eugenio llevaba el hierro en su corazón y firmaba sus escritos como "Ferrón de Olaberri".

Era culto y le gustaba la historia y todo lo relacionado con la naturaleza. Escribió una serie de cuadernos, el primero de ellos *Patricio Echeverría Elorza y sus empresas*. El segundo se titulaba *Historias, mitos y creencias*, y ahí recogía curiosidades de todo tipo. El tercer tomo fue *Historia de la beneficencia en Legazpia*. Fueron alrededor de 40, uno de ellos dedicado a su amigo Iñaki Linazasoro, otro al sacerdote Tomás Madinabeitia. El escultor Eduardo Chillida también tuvo su tomo, al igual que el artesano legazpiarra Félix Pinillos y el también legazpiarra monseñor Josu Iriondo. Otros títulos fueron: *El árbol y su magia*, *Olaberri en mi corazón*, *Oa, la gran desconocida*, *Caolín en Mutiloa*, *Cueva de San Adrián*, *capricho de la naturaleza* y *Apuntes de un viejo cazador*. Estas pequeñas publicaciones contenían fotos y recortes y eran mecanografiadas por Jokin Bereciartu, hijo de su sobrino Joaquín.

Entre 1976 y 1988 fue secretario voluntario del asilo de ancianos, que había sido fundado por Patricio. En la década de los 80 comenzó a llevar a los residentes, allá por noviembre, una buena cantidad de castañas asadas por él mismo. Cumplió con esa tradición alrededor de 25 años.

Fue un gran aficionado a la caza y a la pesca. En cierta ocasión, en Soria, abatió en una sola jornada 42 palomas. Uno de sus grandes amigos fue Agustín Aguirre, alcalde de Urretxu durante bastantes años y empresario del mimbre. También tuvo una profunda amistad con su cuñado Antonio Bereciartu y la esposa de este, Lucía Aguirre. Pero su gran colaborador fue Tomás Sagasti, vecino de Olaberria y quien ayudó a Eugenio durante décadas a mantener el chalet de Gainzabal.

Gainzabal, he aquí un lugar clave en la biografía de Eugenio. Era una casita y él la llamaba "refugio" o "chabola". La construyó hacia 1970. Eligió ese emplazamiento, en el alto de Aztiri, en parte por sus magníficas vistas y también porque su madre, Bernarda Odria, era de allí cerca, del caserío Baztarretxe. En el jardín e interior de la


vivienda había numerosos objetos antiguos, de piedra, hierro y madera. Eugenio estaba particularmente satisfecho de una 'arraska' de piedra, un gran cuenco que originariamente estaba situado al borde del camino que unía Brinkola y la cantera de Oamendi, pasando por el caserío Agerrezabal. Los operarios de la cantera lo usaban para dejar a remojo las habas que iban a cocinar el día siguiente.

Junto a la casita tenía un arboreto muy cuidado, con especies variadas. Entre ellas, una encina traída de la finca Cristo de Villahizán de Patricio Echeverría, en Burgos, regalo del empresario.

Durante toda su vida tuvo perro, de muchas razas: setter, pointer, cocker, foxterrier y otras menores. Hacia el final de su vida le acompañó una perrita, 'Txuri', sorda de nacimiento.

El cerdo en la historia de los vascos

José Antonio Azpiazu



Postal de José Arrue.

Llama la atención el hecho de que, en el panorama literario vasco, el cerdo apenas haya gozado de la atención de los historiadores. Da la impresión de que se lo ha despreciado y ninguneado. El propio *Diccionario de Autoridades*, en su facsímil de 1737, define al puerco como "Animal doméstico, inmundo y sucio, que se ceba y engorda para que sirva de mantenimiento". Sin embargo, al mencionar el término pernil, leemos: "Estrabón dice que los pernils de Vizcaya eran muy estimados". Cobarruvias añade que "dicen aver nacido para satisfacer la gula, por los muchos bocadillos golosos que tiene".

En los archivos de Euskal Herria hay multitud de documentos que hablan de los puercos. Este género goza de una innegable importancia, pero los historiadores apenas han mostrado interés por reflejar esta realidad.

En este momento, cuando la literatura sobre gastronomía no deja de incidir en la importancia que el producto de los cerdos representa en esta faceta, se manifiesta un sorprendente vacío de no-

ticias en lo referente a lo que estos animales han supuesto tanto en la economía como en la vida social vasca. El pernil o jamón, el tocino, las morcillas y los chorizos, tan apreciados en la cocina doméstica como en los centros gastronómicos, carecen de una historia apropiada.

Sin duda, los textos antiguos inciden en esta condición de animal despreciable, pero a la vez se intercalan valiosas apreciaciones sobre lo sabrosos y apreciados que resultan sus productos, por no mencionar su valor económico y comercial: solucionaban los pagos de las rentas, se exportaban como valiosos, mostraban el aprecio de quien recibía como regalo un pernil, y llegaban incluso a formar parte de la comida de los vascos que pescaban en Terranova.

La presencia de los propietarios de piaras de cerdos, de los porqueros encargados de su cuidado, el recurso a regiones de las que se traían cochinos para el engorde, la política municipal de villas propietarias de dehesas y bosques que cobraban por cada cabeza que pastaba en sus términos, etc. Todos esos datos nos abren una nueva ventana a una visión desconocida de la sociedad vasca.

A estas relaciones con el entorno se añade la valiosa participación que Iparralde mantenía con Hegoalde recurriendo al engorde o a la venta de los puercos, de lo que se beneficiaban, sobre todo, las poblaciones de Hegoalde más centradas en la industria como Soraluze.

En fin, todo un sistema de vida, hoy olvidado en un mundo urbanizado, pero del que todavía persisten importantes ejemplos en el sur de la Península, con la que los vascos mantenían importantes tratos.

LEGAZPIKO IKONOGRAFIA: HERRI BATEN ISLA

Mikel Babiano López de Sabando



© Mertxe Urkiola.



© Julen Auzmendi.



© Mikel Babiano.

Irudiak eta haien bilakaera eta esanahia aztertzen dituen zientzia da ikonografia. Gaur egun ohikoa iruditzen zaigu irudiz inguratuta bizitzea; goizean goiz egunkarietako argazkiak ikusten ditugu, telebistako iragarkiekin bazkaltzen dugu, TikTok-eko nahiz YouTubeko bideoen laguntzaz lokartzen gara... Zenbatu ezinekoa da egunegun inguratzen gaituzten irudien kopuru amagabea, baina horrela izan al da beti?

Historiari erreparatzen badiogu, ikonografiak pisu izugarria izan du. Zer itxura eman 18. dinastiako faraoi baten eskulturari? Nola irudikatu XIV. mendeko beirate gotiko batean Ama Birjinaren irudia? Zer argazki atera 1910eko nekazari familia euskaldunari? Garaian garaiko irudiek gizarte zehatz bakoitzaren balioez eta ohiturez hitz egiten digute, tipo edo eredu ikonografikoak finkatzeko tradizioak duen garrantziaz eta baita irudien bizitza eta heriotza kudeatzeko beharrezkoa den botereaz ere. Azken finean, ez da kasualitatea irudien kontrola duenak botere ekonomiko-politikoa izatea, oro har.

Irudizko labirintu posmodernoan alderrai gabiltzan honetan, maiz ahazten dugu, ordea, izan zela garai bat, herri bat, non irudiak eta irudiak

kontsumitzeko aukerak askoz mugatuagoak ziren. Zeintzuk izango ote ziren legazpiarrek duela 200 urte eskura zituzten irudiak? Eta duela 50 urte bistaritzen zituztenak? Zer esanahi zuten irudiok eta zertarako sortzen, erabiltzen, transmititzen zituzten?

Galdera horiei erantzutea da hemendik aurrera atal honetan martxan jarriko dugun proiektuaren helburua. Horrela, *Txinpartak* aldizkaria baliatuko dugu Legazpiko irudi esanguratsuen berri emateko eta, piezaz pieza, Warburgen Atlas Mnemosyne erraldoia bailitzan, bertako puzzle ikonografikoa osatzeko.

Ez da sekretua Legazpiren (Gipuzkoaren, Euskadiren, Europaren...) historian erlijio kristauak izan duen garrantzia; horrenbestez, irudi asko ezagutzeko eta arretaz aztertzeko elizetara jo behar dugu. Irudi horietako batzuk aski ezagunak dira, San Migel elizako eskultura barrokoak edo San Joan Bataiatzailearen ermitako Julio Beobideren eskultura, esate baterako. Andre Mariaren Jaso-kundearen parrokiari dagokionez, bereziki interesgarriak dira harrizko kalbario erromanikoa eta duela gutxi zaharberritu zituzten eskulturak, Lorenzo Askasibarren Nazarena barne.

Badira, ordea, hain ezagunak ez diren beste pieza batzuk, hala nola Brinkolako San Agustin elizako eskulturak eta parrokiako geletan dauden Jose Lopez Furio valentziarraren irudi estilizatuak. Azken horien artean, azpimarratzekoak dira Santa Teresa ikastetxeko (gaurko Olazabal institutua) kaperan egon ziren Kristo gurutziltzatua eta Santa Teresa bera. Kontuan hartzekoak dira, halaber, Artzain Onaren ikastetxeko (gaur Haztegi) fatxadako Ama Birjina eta umea ere. Horiez gain, ez genituzke ahaztu behar Legazpiko auzoetan 1940eko hamarkadatik aurrera jarri zituzten eskulturak (San Ignazio, Arantzazuko Ama...), ezta lantegien eremuan topa ditzakegun San Joseren irudiak ere.



© Mikel Babiano.

Bistan den bezala, XX. mendean zehar erlijioa oso presente egon zen legazpiarren bizitzetan eta hori garai hartako instituzio eta lantokietako irudi publikoetan islatu zen. Horrela, kolektibo bakoitzak erreferentziako irudi zehatzak zituen: Ama Birjina eta umea mutikoentzat, San Jose lantegiko langileentzat, Santa Teresa eta Kristo gurutziltzatua nesKentzat... Irudi horiek transmitzen zituzten balioekin batera.



© Mikel Babiano.

Bestetik, Patricio Echeverriak eta haren senideek garrantzi handia izan zuten programa ikonografikoa aukeratu, finkatu eta bultzatzeko unean, testuinguru historiko zehatz baten barruan beti ere. Horren eraginez, poliki-poliki, Legazpik XX. mendeko erlijiozko irudien ondare baliotsua pilatu ahal izan zuen.



© Mikel Babiano.

Orain arte eskultuz aritu gara, baina horiez gain beste diziplina artistiko batzuk ere aintzat hartuko ditugu. Aipagarriak dira, kasu, Santa Cruz egoitzako kaperako beirateak, eta baita parrokiakoak ere. Bide batez, urteen poderioz desagerturiko ondarearen inguruan nahiz planifikatu arren sekula eginkaritu ez ziren proiektu ikonografikoez (parrokiarako Maumejeanen beirateak, adibidez) ere hitz egin ahaliko dugu.



© Mikel Babiano.

Funts-funtsean, Legazpiren nahiz legazpiarren historian esanguratsuak izan diren irudiei erreparatzea da aldizkariko atal honen helburua. Horretarako, irudiekin loturiko perspektiba artistikoa, historikoa eta soziala uztartuko ditugu. Azken finean, gu geu gara irudiei bizitza eta balioak ematen dizkiegunak, balio horiek etengabe aldatzen direla ahaztu gabe. Ikuslerik gabe, ez da irudirik.

FOTOGRAFÍAS DE PATRICIO ECHEVERRÍA S.A.

- Un tesoro recuperado -

Gorka Salmerón Murgiondo



Inauguración de la exposición "Nuevos Fondos", Museo de Bellas Artes de Bilbao. © Miren Salmerón.

Patricio Echeverría S.A. ha sido el eje motor del desarrollo de Legazpi en el siglo XX. La historia de Legazpi, al igual que la de muchas comarcas de Euskadi, está unida a la tradición del hierro. En la región se ha elaborado hierro durante siglos. Esta tradición milenaria se divide en tres épocas: "Haizeolas" -ferrerías de aire-, "zeharrolas" -ferrerías de agua- y la factoría de Patricio, activa desde 1908 hasta que se desmembró en diversas empresas en 1992. P.E.S.A. contaba con una plantilla de 12 hombres en sus inicios, llegando a tener 3.500 a finales de los 70. El desarrollo de la zona ha dependido de "la fábrica", en una especie de sistema casi feudal que perduró hasta finales del pasado siglo.

Gracias a una entrevista que concertó Ignacio Arbidie con Errasti, el director de Recursos Humanos, pude acceder al interior de la fábrica para fotografiar las instalaciones entre 1991 y 1992. Entonces no era consciente de que estaba documentando el final de una época, un modelo de empresa familiar que perduró a lo largo del siglo XX en diver-


sas localidades de la geografía de Euskal Herria y que estaba a punto de desaparecer.

Cuando estaba terminando de preparar mi trabajo, la exposición "Leaxpi Industri Paisaiak", me encontré con el "Tesoro Olvidado": más de 200 fotografías de la empresa ejecutadas por grandes fotógrafos entre 1918 y los años 60 tiradas por los suelos y en condiciones deplorables. Las fotografías se recuperaron y en 2016 Burdina publicó el libro *Luz para un Tesoro Olvidado*, donde se recoge la biografía y andanzas de aquellos fotógrafos que contrató Patricio Echeverría para publicitar sus herramientas.

En 2024 doné esas 209 fotografías al Museo de Bellas Artes de Bilbao, junto con otra serie de imágenes de mi trabajo *Leaxpi Industri Paisaiak*. El 25 de febrero de 2025 se inauguró en el Museo la exposición "Nuevos Fondos", en la que se incluían alrededor de una veintena de fotografías de P.E.S.A. (1918-1992). El 8 de abril impartí una charla sobre estos fotógrafos en el Museo de Bellas Artes de Bilbao y una semana más tarde, el 15 de abril, tuve ocasión de hacer un repaso más amplio sobre el tema en Kultur Etxea de Legazpi, homenajeando a los trabajadores que fotografié a comienzos de los años 90 en la empresa.


Los aceros "Bellota" manufacturados por P.E.S.A. han sido reconocidos por su calidad. Echeverría, fiel a la premisa de ofrecer productos excelentes, contrató a los mejores fotógrafos. Esta colección de fotografías permite realizar un recorrido desde 1918 hasta los años 90. Numerosos fotógrafos, figuras reconocidas como Willy Koch, Pando, la aeronáutica T.A.F. o Pascual Marín retrataron las instalaciones, si bien hay otros autores menos renombrados cuyos trabajos están a la altura de los citados: fotógrafos desconocidos, Photito, Lucio Vergara, Central Photo Film -Leopoldo Pedrosa, José García- Manipel, Imprenta Industrial, Paisajes Españoles, Santi Gabiria...

El tesoro olvidado, recuperado, lo custodia ahora el Museo de Bellas Artes de Bilbao. El fondo está en buenas manos y confío en que en un futuro nos den gratas sorpresas en lo que se refiere a su promoción y divulgación.



**Patricio Echeverría S.A. ren argazkiak
Berreskuratutako altxorra**

